

KRISTO ITZULI DA, BERE EGIA DAKAR

7.GUTUNAREN sarrera

BITARTEKARIA: Bada ezohiko gertaera harrigarri bat -miragarria-, hurrengo **GUTUNARI** dagokiona.

7. GUTUNA amaiturik zegoenean, Bitartekariari argi eta garbi esan zitzaion Mateoren parabola 13: 3 erabiltzeko hasierako ahapaldietan.

Pixka bat geroago era indartsuan etorri zitzaion 2. orrialdean **-rekin markaturiko paragrafo bat eransteko agindua.

7. GUTUNA inprimatu egin zen. Orrialdeak alderatzean txunditurik geratu zen -habailduta- 1. orrialdearen erdia honako hitz hauen bidez okupatu zela ikustean:

Neu naiz BIZIA, EGIA, eta BIDEA

ordenagailuan idatziak izan ez zirenak.

‘Orri-oin’ bat ematen zuen. Baina, halako ‘orri-oina’ soil soilik idatz zitekeen, ‘orri-oina’ sortu ahal izateko behar den ‘Word Perfect’ aplikazioaren instrukzio zehatz eta bereziak erabiltzean.

Areago, eskuarki bi lerro baino ez dira ezartzen horrelako oharretan. Orrialde erdia ez da gero, ‘orri-oin’ bat!

Oraindik, gertatutakoagatik zur eta lur zegoelarik, BITARTEKARIAK artxiboak banaka aztertu zituen ‘orri-oin’ hori inoiz erabilia ote zuen ikusteko, baina ez zuen deus aurkitu.

Teknikari bati deitu, eta erakutsi zitzaion ordenagailuan testua eta inprimatutako ‘orri-oina’ bera, baina aditua ez zen gai izan nola gertatu ahal izan zen azaltzeko. Orain arte, inor ez da argitzeko gai izan.

Beharbada ez dakiten haientzat esan behar da **Neu naiz BIZIA, EGIA, eta BIDEA** baieztapena **JESUKRISTOK** berak egin zuela Palestinako misioan bere burua deskribatzean.

Testua Kristok aipatua eta azaldua da **7. GUTUNAREN** 8. orrialdean, baina hitzak beste orden batean emanak.

2. orrialdean **-rekin markaturiko ahapaldiak, eta lehen orrialdeko ‘ORRI-OINA’ batera irakurtzen dituzunean, zalantzarik gabe beste zentzu bat izanen dute zuretzat, elkarlotuak daudelako, jakina!

Lehendabizikotz ** ahapaldia indar biziz izan zen diktatua eta ordenagailuan idatzia; eta handik gutxira une batez ‘orri-oina’ erantsi zitzaion lehen orrialdiari.

Beste misterio bat! Zer dela eta ez zen nabaritzen ‘orri-oin’ hori inprimatzean?

Bitartekaria bakarrik bizi da. Beste inork ezin zezakeen ordenagailuan sartzeko aukerarik izan.

Word Perfect prozeduraren esku hartze eta urratze hori **KRISTOREN beraren sinaduratzat jotzen du bitartekariak --- hain zuzen ere, lurrean zegoenean egin zezakeen zerbait da hori.**

KRISTO ITZULI DA, BERE EGIA DAKAR

7 GUTUNA

NEU naiz berriro, **KRISTO**; eta **GUTUN** honen bidez etorri naiz zuen artera, nire hitzak jaso ditzakezuen guztiongana.

Honako parabola hau berdin aplika daiteke zuen garai modernoan edo juduen garaian, orain 2001 urte. Horren egia zuri, GUTUNOK irakurtzen ari zaren horri, gomendatzen dizut!

'Ereinlaria ereitera atera zen. Ereitean, hazi batzuk bidezidorrean erori ziren; txoriak etorri eta jan egin zituzten. Beste batzuk lur harritsuan, non lur nahikorik ez zuten; lurra sakona ez zenez bizkor erne ziren; baina eguzkia irten orduko kizkali ziren eta sustrai ezagatik lehortu. Beste batzuk sasi artean erori ziren; sasiak hazi eta ito egin zituzten. Beste batzuk lur emankorrean erori ziren eta garau eman zuten: batzuek ehun, beste batzuek hirurogei, eta beste batzuek hogeitamar. Entzuteko prest dagoenak entzun dezala.....!'

Beraz, entzun orain adi-adi ereinlariaren parabolak zer esan nahi duen!

Neu naiz BIZIA, EGIA, eta BIDEA

Norbaitek Erresumari buruzko mezua entzun eta ulertzen ez duenean, gaiztoak, (egoak) bere bihotzean ereindakoa erauzi egiten du; bidean zehar erein zena da hori. Lur harritsuan erein zenari dagokionez, hori da mezua entzun eta berehala pozarren onartzen duena; hala ere, ez dauka sustrairik bere baitan, baina pixka bat aguantatzen du, eta mezuagatik oztopo edo jazarpenen bat agertu bezain laster, huts egiten du berehala. Sasi artean ereindakoa, mezua entzuten duena da, baina Munduko ahaleginek, aberastasunek eta gozamenek ito egiten dute eta antzu geratzen da. Lur emankorrean ereindakoa, mezua aditu eta ulertzen duena da; horrek bai, fruitua ematen du; eta ehun ematen du kasu batean, beste batean hirurogei, eta beste batean hogeitamar. Mateo 13: 3.

**** Izatearen Egiaren** ezagutza zurekin partekatzean **GUTUN** hauetan ene asmoa da, zuk hazteko gaitasuna izan dezazula jakinduria eta maitasun espiritualean; halako jakinduria eta maitasun espiritualen fruituak eta bendizioak sor daitezen eboluzioan duzun kontzientzia-une bakoitzean. Irrikatzen dut zu guztiz **zoriontsua** izatea.

Beraz, elkarrekin golda dezagun zure kontzientziaren giza lurra, iraul dezagun, aska dezagun etsipenaren harrietatik, apur ditzagun ulerkuntza ezaren koskorrak gero eta jakinduria sakonagoaz, erauzi ditzagun gure patroi mental/emozionalen belarrak nire laguntzarekin, demaiogun ongarrria zure kontzientziaren lurrari gero eta sinesmen handiagoarekin. Gero, erein itzazu eboluzioan diren zure hautemate espiritualek eta baldintzagabeko maitasunak sortutako haziak -gero eta ederragoak-. Nire poza zure poza izanen da ahalegin horretan, eta zure poza nireari erantsia izanen da. Helburu eta lorpen hauetan bat eginik, azkenean, benetan sentituko duzu nire espirituarena zarela, eta nire espiritua zure barrenera isurtzen ari dela. Horrela, guk bizi egingo dugu **HAREN** batasuna, **ZEINARENGANDIK** banakotasuna hartua dugun. Nire pentsamenduak zure pentsamenduak izanen dira, zure aurreko ego-kontzientziak kutsatu gabekoak, alegia.**

Zure bihotzaren irrikarik gorenak eta perfektuenak lortzeko ibiliko duzun prozesua -bidea- deskribatu dut.

Halaber diotsut **GUTUN** hau kate-maila sendoa dela zure kontzientziaren eta nirearen artean, nahiz eta hasieran onartzea zaila izan daitekeen, eta guztiz ulertzeko denbora eta ahaleginak egitea eskatzen duen.

Nire egoera haraindikoan gehiago egin dezaket zure alde hots egiten didazunean, lurrera gorputz fisiko batean itzuliko banintz egin nezakeena baino -zeinaren bidez zure begiez ikusi eta zure belarriez entzun ahal izango zenidakeen, baina **Izatearen Egiaren** zure ulerkuntza mugatua izan liteke.

Zure kontzientziarekiko kontaktu modu honetan, zuzenean jaso ahal izango nauzu gogamenean eta bihotzean, halako kontakturako aurrebaldintzak beteak izaten direnean.

Benetan diotsut, **GUTUN** hauei zenbat eta denbora eta meditazio gehiago eskaini, orduan eta posibleago **izanen da** zuretzat, pertsonalki, neure goreneko inspirazioa eta instrukzioa jasotzea, zeren **GUTUN** hauen irakurketa bakoitzarekin kontzientziaren zeure frekuentziak gehiago igoko baitira nire kontzientzia espiritualaren frekuentzietarantz; eta azkenean gure kontzientziak zinez elkartzea lortuko dugu. Orduan

ugariak izango dira fruituak zure bizitzan.

Hori horrelaxe zergatik den azaltzeko, esan behar dizut nire **kontzientzia**, bibrazio-frekuentzia anitzetakoak diren plano asko zeharkatuz jaisten dela, laguntza eta inspirazioa bilatzen dutenen beharrak asetzeko. Ene kontzientziak zeharkatzen dituen kontzientzia-plano ugari eta anitzak, batzuk eta besteak, oso bestelakoak dira.

Kontzientzia-frekuentzien maila bakoitzak **sortzen du eta agertzen da existentziaren kondizio desberdinak bezala**; zeren kontzientziaren patroia edo forma espiritual/mental/emozionalik altuenek eta baxuenek sortzen baitituzte kontzientziaren bibrazio-frekuentziarik altuenak eta baxuenak. Patroia altuak eta baxuak esatean, esan nahi dut **Zeruko Kontzientziaren Asmotik** gertuago edo urrunago daudena direla.

Ondo dakizunez, soinu-uhinen bibrazio-frekuentzia bakoitzak bere nota eta tonu indibidual bakarra sortzen du. Antzera, pentsamenduko ohiko forma mental/emozionalek beren bibrazio-frekuentziak sortzen dituzte kontzientzian; eta bibrazio-frekuentziek, berriz, kanpoko kondizioak sortzen dituzte, non kontzientzia bizi den.

Kontzientziaren bibrazio-frekuentziak zenbat eta altuagoak izan, orduan eta ederragoak, harmoniatsuagoak, alaiagoak eta beteagoak izanen dira frekuentzia horien barnean daudenen bizitzak. Frekuentziak zenbat eta baxuagoak izan, orduan eta latzagoak, mingotsagoak, garratzagoak eta tristeagoak izango dira aipatu frekuentziekin bat egiten dutenen bizitzak. Hondamenek, gabetzeak eta basakeriak markatuak izango dira euren bizitzak.

Kontzientziaren bibrazio-frekuentzia zenbat eta altuagoa izan, orduan eta -espiritualki- amultsuagoak eta ederragoak dira pentsamenduak, irudimen sortzailea, idealak, eta kolorearen eta bizitza-formen edertasuna, zeren igotzen ari baitira **KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN** dimentsiotik gero eta hurbilago daudela. **KONTZIENTZIA UNIBERTSALEAN** frekuentziak halako altuerara iristen dira, ezen berdindu eta sartzen baitira oreka ahaltsuan, **KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN AHALMEN GUZTIAN, Izate Ooren Iturrian, MAITASUNEAN.**

Zuri iruditu ahal zaizu gorputza kanpoko kodizioetan bizi dela, baina honako hau duzu egia: barnean dagoen kontzientzia da kanpoko kondizioak esperimendu eta horiei erantzuten diena. Gorputza, gainontzekoei giza kontzientzia ikusgai egiteko ibilgailua baino ez da; eta ibilgailu horren egoera izatez, bertan bizi den pertsonaren kontzientzia espiritual/mental/emozionalaren mailaren manifestazioa da.

Beraz, lehenago esan dudanez, behar indibidualaren begirale bezala eta laguntza-eskaerei erantzunez, nire kontzientzia hainbat kontzientzia-mailaren bidez jaisten da eskatzaile zintzoagana iristeko, zeren erantzunak eman ahal izateko lehendabizi beharra jaso behar baitut. Eta bigarren orrialdean esana dudanez, **GUTUN** hauek kate-maila dira, nire **Kontzientziarekin** komunikatzeko duzun bitartekoa, zu espiritualki erakarria eta harkorragoa izateko gai izan zaitez. Gero, zurekin partekatu nahi dudana ezagutza guztia sakonki uler eta erabil dezazun, kontzientzia espiritualaren eskaileratik **KONTZIENTZIA KRISTIKOAREN** goreneko mailaraino igo zaitez.

Nik neuk oreka perfektutik gertu izanik, **KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN** ahalmen espiritualak daukat ia maila perfekturaino. Kontzientzia Unibertsalaren izaeraz adoretuta nago.

Beraz, nire kontzientzia guztiak, baldintza gabeko **MAITASUN** hutsaren kontzientzia izaten jarraitzen du

axola izan gabe beste batzuen pentsamenduak edo hitzak, beren sinesmena edo ez-sinesmena, maitasuna edo gorrotoa, eta neuri buruzko onarpena edo arbuioa. **Inoiz ez du zalantzarik izaten, eta sekula ez da aldatzen. MAITASUN hutsean, ZAINKETAN eta GUPIDAN oinarritzen diren jokabide sendoak dira nireak, eta horiek esperimentatzen ditut irrika sakon bat bezala espiritualki goratzeko, sendatzeko eta aurrera eginarazteko. Beraz, guztiz posiblea da pertsona batzuentzat (kontzientziaren bibrazio-frekuentziei sentiberak baldin badira), nire presentziaren edo maitasunaren edo bizi indar berezi baten jabe izatera iristea, egoten direnean irrika-egoera kontziente batean bilatuz, ni hobeto ezagutzeko edo espiritualki hobeto eboluzionatzeko otoitz eginez.**

Lurrean arazoak sortzen dituzten kontzientziaren frekuentzia baxuenez hitz egiten dudan bitartean, jabetuko zara arazo horiek gupidagarriro onartzen ditudala, erabat; zeren, arazook jendearen sufrimenduaren eta borroka mingarrien manifestazioa baino ez baitira, jendeak bere IZATEAREN ITURRIAREN ARGIRAKO bidea aurkitu nahian dabilen bitartean. Jende artera nator, ez kondenatzera, jendea altxatzera eta indartzera baizik.

Nire **Kontzientzia Kristikoa** zuregana irradiatzen dut, nik gogamenean zure izena eta forma espirituala jasoz eta sostengatuz laguntza eskatzen didazunean. Eta harkor egon ahala, eta libre 'atxikidura-arbuioen' bulkada magnetikoetatik, zure kontzientziaren oraingo bibrazio-frekuentziek pixka bat hartzen dute Izatearen Zeruko izaeratik, eta orduan esperimentatzen dute goratze-zirrara bizia.

Beraz, argi eta garbi izan behar duzu, zuk zeure lur-kontzientzia bere lotura emozionaletik deskargatu ahala (Zeruko Maitasunaren harmoniatik kanpo daudela nabaritzen dituzun pentsamendu emozionalen patriiak mentalki eta emozionalki arbuizatzearen), gero eta jabetuago egongo zarela gogamenera -baita eguzki plexura ere- barneratzen ari den goragoko inspirazio batez; eta horrek orientabidea emango dizu behar duzun momentuetan; hots, gai ez zarenean hartu behar diren neurririk hoberenak hautemateko, edo gai ez zarenean zure pentsatze egozentrikoaren emozionalitatetik arazteko, egoera zail baten aurrean erreakzionatzean. Nire laguntzarekin bi dimentsiotan bizi zaitezke: mundu fisikoaren dimentsioan, non zure esperientziak ekartzen dizkizun gorputza bizi duzun; eta Kontzientzia Kristikoaren ikuspegi gorenaren dimentsioan, zeinak utziko baituzu gainditzen pentsatze egozentrikoa, eta zure egoeretan pentsamenduak eta sentimenduak irradiatzen nik Zeruko Erresuma deitu nuen izatezko egoera hartatik.

Ez nago bakarrik lan honetan. Maila goreneko arima anitz dira, haraindikoak, espiritualak, ederrak eta amultsuki adimentsuak; eta horiek Kontzientzia Kristikoaren dimentsioan sar daitezke -nirekin lan eginez- jendeari laguntzeko. Nahiz eta Kontzientzia Kristikoaren dimentsioan izan, denok gara banakoak. Ez gara batzuk besteen kopiak. Denok adierazten dugu Kontzientzia Kristikoa era aintzagarri anitzetan -gure jardueren enfasia, sormenaren alderdi ezberdinetan jarria. Gaitasun handiko irudimena daukagu; eta guk, geure dimentsioaren baitan sortu eta ekarri ahal ditugu begibistako forma indibidualera, zure gaurko ulerkuntzatik askoz haratago dauden gauzak.

Mundu guztian zehar entzungo duzu jendea inspirazioa jasotzen ari dela eta Kristoren Presentziaren jabe dela. Izaera eta gogamen anitzek jasotzen dute nire inspirazioa, mundura une honetan irradiatzen ari dena. Aurreko baldintzapen mentala dela eta, inspirazioak pertsona bakoitza bide ezberdin batetik

bideratuko du. Nik beren kontzientzian sar ditzakedan mezuek itxura diferenteak izango dituzte. Kasu batzuetan, jasotzaileek erabat distortsionatuko dituzte mezuek; jasotzaile horiek psikikoki harkorrak dira, baina aspaldian ibilitako bide erlijiosoei eusten dien oso **gogamen ortodoxoa** dute. Edozein mezu ulertuko da kontrola duten sinesmenen arabera. Jasotzen den edozein mezu, baldin eta onartutako sineskeren aurkakoa bada, gogamenetik bizkor egotzia izango da, eta aipatu mezuaren jabetza Satanasi leporatuko zaio. Horrexegatik, zabalik dagoen eta egia irrikatzen duen gogamena baino ezin izan da iritsi, ez ordea, irakaskuntza tradizionala duena. **Hala eta guztiz ere, ziur egon zaitezke nire mezu pertsonalak jendearengan beti piztuko duela dogma eta instituzionalizatutako erlijio oren printzipio murriztu eta akastunetatik alde egiteko premia beharra. Mezuak, kontzientzia-bideak irekiko ditu ezagutza espiritualaren hazkunde aldera. Mezuak jendea gidatuko du, zeruko pentsamenduen dimentsioetaraino -gero eta gorago daudenak-, lurreko konzeptu materialistekin kontrastean. Zeure Izatearen Iturriaren eta orain bizi duzun unibertsoaren benetako izaeraren estimu biziagoa emango du mezuak.**

Lurrean nengoela profetizatu nuen egunen batean itzuliko nintzela, 'ekialdetik mendebaldera zeruan zeharreko argi izpiak' igarotzen diren bezala. Hori, gaur egun dihardudan moduaren deskribapen grafikoa izan zen. Agian, aurreko ahapaldia irakurri ondoren, onartuko duzu 'izpia' mundu osora hedatu dela nire itzuleraren zain irrikitan daudenak atzemateko moduan. **Badira pertsonak, ahaleginak egiten ari direnak jendearengan pizteko zein diren miseria eta etorkizuneko planetaren suntsiketa dakarten kausa asko. Ene egiaren asmoa da pertsona horien gogamenak igoaraztea eta iluminatzea. Ezin konta ahala 'arima zahar', interes propiorik gabe ari dira ehunka modu ezberdinetan beharra duen jendearen oinazea arintzeko, eta horretarako beren energia, denbora, eta lur-maila ematen dute bultzatzeko naturaren eta animalien maitasuna, euren ongizatea eta babesa, eta planetaren beraren etorkizuneko osasuna. Nahiz eta arima eder horiek beharbada ez izan horren guztiaren jabe, kezka horietarik bat bera ere ez zen sortu, behar egoistetara baino jotzen ez duen lurreko giza pentsamendutik, Kontzientzia Kristikoaren dimentsiotik baizik; non gauza guztiak ikusten baitira Izate Oren Iturriaren Maitasun/Adimenaren adierazpen bat bezala. GUTUN honetan argi eta garbi azaldu nahi dut hitz hauen bitartekariaren bidez etorri naizela gizartearen maila guztietako jende **harkorrari laguntzera** -peoitik generalera, bulegaritik Presidentera- guztiz **MAITASUNAREN** ikuspegitik lan egitera.**

Badira arrazoi espiritual/zientifiko materialistak, zeintzuegatik guztiz beharrezkoa baita jendeak bere energia mentalak eta emozionalak ematea, bere egintzak eta erreakzioak perfektuki alineaturik eta harmonian egon daitezten **MAITASUNA - ZERUKO KONTZIENTZIAREKIN**.

Une honetan munduan zehar dagoen kontzientzia-mailaren barnean geratzea, beharrezko etengabeko erorketa izatea da gaixotasun, zoritxar eta trastorno anitzen aldera eta oinaze handienerantz.

Gizon-emakumeak zure munduan bi existentzia-mailatan bizi daitezke. Edo bizi daitezke soilik ego bulkaden mailatik, zeintzuk baitira eguneroko giza esperientzia izaten duten fenomeno guztien atzean eta barruan dauden indar kontrolatzaileak, edo bestela mental-emozionalki bare bizi daitezke **Zeruko Kontzientziaren** baitan beren gorputzek lur mailan dirauten bitartean.

Kontzientzia egozentrikoaren fruituak honako hauek dituzu: liskarrak, asaldatzeak, nahasmendu

klimatikoak eta anormaltasunak, gerrak, era guztietako menpekotasunak, pobrezia, gaixotasunak, erailketak, lapurretak, gezurrak, engainuak, difamazioak, esamesak, behe mailako pentsamendu deprimigarriak, inbidia-pentsamenduak, haserrez beteriko pentsamenduak, umore txarra, epaiak, kritika, trufa ankerrak, besteak arbuiatzea, ...eta abar.

Kontzientziaren frekuentzia horiek beti ari dira ekartzen inguruabarretatik eta erreakzio sentituetatik jai ziren 'ispiluarenak bezalako islak'; eta etengabe lotuak daude gauzatze gorabehereri, itxaropeneri eta desilusioeri, kulunkan zoriontasunaren eta tristeziaren artean.

Otoitza, meditazioa, autodiziplina eta erabakitasunaren bidez, egoaren kontzientzia araztea eta beste indibiduoeri eta oro har mundu osoari begirako pentsamendu amultsuak -gero eta zintzoagoak- zehaztuz eta gordez goratzea lortzen duten pertsonak, pixkanaka kontzientzian igotzen dira **Zeruko Kontzientzia edo Zeruko Erresumaren** bibrazio frekuentzietaraino, non eroso eta gustura bizi diren harmonian **Existenziaren Lege Unibertsalekin**. Aipatutako pertsonak munduan, inguruan dituzten arazoak eta iskanbilak direnak direla, gogamenean bake perfektuan elikatuak, sendatuak, babestuak, zainduak eta mantentituak izango dira, baldin eta bibrazio frekuentzia espiritualen barnean geratzen badira.

Beren buruari jaisten uzten diotenean liskar egoistetara eta egoaren edozein atributorekin zerikusia duen edozein giza kondizio negatibotara, bakea bortizki desagertzen da eta kontzientziaren bibrazio frekuentzietan harrapatuak geratzen dira, zeintzuk beren inguruko beste pertsonenak bezalako kontzientzia-frekuentziez elikatzen diren.

Armiarma sarean atzemandako eulia bezalakoak dira; eta ondoren, kontzientzia-bibrazioen frekuentziarik baxuenetako pentsamenduak askatzeko edo deskorapilatzeke borroka lehegarria eta mingarria izan daiteke.

Aipatu momentuetan, ibiltari espiritualak itzultzeko bidea aurkitu ahal izateko bitarteko bakarrak dira: meditazioa eta etengabeko otoitza; erregu bat, 'jarrera emozional zuzenak' lortzeko laguntza, indarra eta orientazioa izan ditzan; hori guztia, energia baxuenetako eremuen segadatik irteteko eta zeruko kontzientziaren bibrazio frekuentziekin harmonia-egoera bateraino iristeko.

Posible da zuk uste izatea aurrekoa ulertzea zailegia dela, eta ez dela beharrezkoa zure goratze espiritualaren bilaketan. Aitzitik, zure kontzientziaren izaeraren ulerkuntza hori garrantzi handikoa da. Kontzientzia baxuko bibrazio frekuentzietara jaisten ari bazara, eta gatazka esperimendatzen ari bazara 'une honetan sentitzen duzunaren' eta sentitu behar duzuna edo zenukeena dakizunaren artean; kontrol handiagoa esperimendatuko duzu, ulertzen baduzu sufritu, sufritzen ari zarela kontzientzia espiritual normalen bibrazio-frekuentziak erortzen utzi zenituelako. Zehaztu zein den arrazoia eta eraman ezazu **Zeruko Kontzientziara** barne gatazka konpontzeko. Denbora aurrera joan ahala, bat batean zure otoitzari erantzunez emango zaizkizu jokabide zuzena izateko orientazioa eta arazoa argitzeko baieztapenak.

Areago, zuk 'kontzientziaren frekuentzien' maila igo ahala, ikusiko duzue barrua indartsu daukazula espirituz eta bizi indarrez; alderantziz gertatzen da kontzientzia baxuagoko bibrazioetan harrapatuta zaudenean, izan daiteke pentsamendu baxuagoko frekuentzien aldera jaisteagatik edo aipatu frekuentzietarantz emozionalki erakarria egoteagatik pertsonalitate negatibo edo egozentriko batekin komunikatzeagatik. Hori gertatzen denean, energia galera bat esperimendatuko duzu. **Energia galera**

horrek energia fisikoa agortzea dakar zure gorputzaren zeluletan.

Beraz, bidai espiritualari nahita ekitean, zeure burua ikusi behar duzu zeuk aukeratutako helmugara doan tren batera igotzen ari zarela. Bidaiatzean baldin eta leihotik jauzi egiten baduzu nolabaiteko gozamenak eskaintzen dituzten haran berdeak edo hiri emozionaleak begiz jotzean, eta alferkerian bazabiltza zuk hasitako bidaiatik oso urrutira eramaten zaituzten zenbait bide eta bidexkatan zehar, zail egingo zaizu jatorrizko bide hura berriz hartzea. Lehendabizi igaro beharko duzu beste interesgune batzuetara egindako "ihesaldietan" xurgatu zenituen kontzientzia baxuko energien araztasun batetik. Hori luzerako izan daiteke, eta beharbada baliteke zuk beste esperientzia mingarri batzuetatik igaro behar izatea, berriz zeharkatu ahal dezazun zure kontzientziak behar duen arazketatik. Bizitzan egiten duzun guztian, edo aurrera egiten ari zara espiritualki, edo mugitzen ari zara kontzientzia guneean, zeintzuk kaltegarriak diren zure bilaketa eta epe luzeko bidaia egiteko kontzientzia espiritualaren goreneko mailetarantz. Inoiz ez duzu alde egingo kontzientziaren prozesuetatik, ezta ekidinezina den **Existenziaren Legeen** funtziotik ere. Zure bizitza ezin da eten, zuk alde egiten duzun bitartean parrandan egiteko, zeinak uste baituzu ez duela axolarik izango batere inork jakingo ez duelako. Egiten duzun edozer kontzientzian egiten den ekintza bat da; eta dena delako horrek -ongizatea ematen dizuna izan edo zure ondasun preziatuaren aurkakoa izan-, izaera bereko ondoreak izango ditu.

Zure bizitzan dena dago erlazionaturik beste jardueraren batekin kontzientzian. Ezer ez dago gainerako guztitik isolaturik. Jendeak uste du gaur egiten duena konpartimentu batean dagoela. 'Gaurkoa' 'atzoko' bihurtzen dela uste du eta jada iragana dela, eta ez duela zer ikusirik izango bere 'gaurkoarekin'. Baina, beraientzat zoritxarrez, euren esperientzian ikusiko dute uzta bezala sei hilabete barru, urtebete edo baita hamar urte barru ere, kontzientzia-energiek behar dena erakartzen dezatenean beren manifestazio ikusgaia gauzatu ahal izateko. Gero jendeak galdetuko du: zergatik gertatu zait hori? Zergatik niri?

Ulertu beharra daukazu bidai espiritual batean hasten zarenean, oina zure bibrazio espiritualak goragoko mailetara igoko dituen bide batean jartzen duzula. Utzikeriak eta sendotasun ezak, bibrazio frekuentzien maila ezberdinen arteko egoera gorabeheratsu batera eramango zaituzte. Sendotasun gabeko momentu horiek min emozionalez beterik daude. Gora eta behera zabiltzan bitartean, lehen zure ikuspegi espiritualak igotzen zuen energia espiritualaren jatorrizko kemena desagertzen doa, eta azkenean, kexatzen zara otoitzera eta meditaziora itzultzeko zailtasunaz. Zaila da egitea **Zeruko Kontzientziarekin** egin ahal zenuen kontaktua, joan aurretik paseo atsegingarriren batera, zeinak zure kontzientziaren frekuentzien gain-behera ekarri zuen. Horrela, bulkada erasokorreki amore ematean, bizitza zaildu egiten duzu eta bide harritsuago batean ibiltzen zara.

Aldi berean, zure kontzientziaren baitan dauden bulkadek adierazten dute zure giza kontzientziaren arlo batzuek findu beharra daukatela. Bulkadak, garrantzi handiko ikasgaireren bat irakasteko behar diren bitarteko bihurtzen dira. Izatez, inork ezin du hartu 'Zeruko Erresumara' doan bide estua, eta desadostasunik edo desbideratzerik gabe bertan iraun, harik eta pertsona hori bere ezkutuko bulkaden fruituak erabat esperimentatutakoa izan arte. Fruituek eskaintzeko duten guztia erabat esperimentatzeagatik, jendeak argi eta garbi ondorioztatzen du sedukzio faltsuak zirela, ez zuela merezi horrek dakarren mina eta izugarrizko ahalegina, berriz ere bide espiritualera itzultzeko. Soilik sakonki errotutako bulkadak onartuak eta emaitzak kontzientzian grabatuak izan eta gero,

egin daiteke mental eta emozionalki erabakitako aukeraketa hau: bizitza, maila espiritual jasoago batean bizitzea. Azken erabaki hori modu erabakior eta positiboan hartzen denean, aurreko bulkadak kontzientziatik erauziak dira.

Baina esan behar dizut, zure bizitza maila espiritual jasoago batean bizitzeko erabakia hartzen duzunean, ez zarela ezinbestean iritsi zure arazoan amaierara. Espiritualitate gorenean erreala eta faltsua zer den jakin gabe, beharbada kultu anitzek erakarrita egongo zara, mugagabeko desertu batean sarraraziko zaituzten kultuak, alegia.

Ni, Kristo, GUTUN hauen bitartekariaren bidez etorri naiz irakastera nola aukeratu behar dituzun zure giza existentziaren helbururik gorenak eta zure **benetako azken destinoa** bidaiatzen duzun lurreko 'trenean'. Zure bilaketa espiritualetan zu, bidai-foileto ugari -koloretan- aurkezten zaizkion pertsona bat bezalakoa zara; horiek, toki turistiko exotiko batzuen gozamenak eta luxuak adierazten dituzte, non lasaitu eta indarrak berreskura ditzakezun. Maisu espiritual batek, helburu espezifiko batera zaramatzan bidai bat egiteko gogoia pizten dizu, zeina arazo mental emozional baten konponbidea izan daitekeen; beste maisu batek berriz, beste helburu bat eta beste bide bat eskaintzen dizun bitartean. Maisu espiritual hauetako bakoitza arindura eskaintzen ari da giza samin edo oinazeren baterako, zeina eurek ere iraganean espermentatu eta gainditu duten. Bakoitzak azkenean bere kabuz aurkitu du arindura. **Zalantzarik gabe, denek dute mezu baliotsuren bat -era batekoa edo bestekoa- jendearekin partekatzeko; zeina txunditurik baitago bizimoduko arazoengatik eta ez baitaki nora jo bere existentzia zailean laguntza eta erosotasuna izateko.**

Baina, ni, existentzia unibertsal espiritualaren goreneko maila onuragarritik etorri naiz zugana bitartekari baten bidez -zeinak kontu handiz araztu eta bizimodu espiritualez sakonki eraginako eta lanera dedikaturiko gogamena baitu-, mezu hau eramateko jasotzeko prest dagoenari.

Zugana etorri naiz adieraztera benetan nor zaren zure indibidualitatearen bazterrik sakonenetan,... eta nor eta zer izatea lor dezakezun.

Aurrekoa bezain garrantzizkoa: Zuri irakastera etorri naiz zein izan daitekeen bidea, zeinarekin giza kontzientzia eraman dezakezun kontzientzia espiritualaren erresuma gorenetaraino.

Lurrean nengoenean zera nioen: 'Neu naiz Egia

Bidea

eta Bizia'

Eta horrelakoxea **nintzen ni – eta Naiz.**

Gutun hauetan ematen ari natzaizun Egia

Irakasten ari natzaizun Bidea

Lortzeko: Bizi Ugaria

Beste agente bat 'makulu' espiritual bat bezala behar izateak ahuldu egiten du arima; beraz, menpean egotea, baita nire menpe egotea ere, aldi baterako neurria bezala onartu behar da. Horregatik, nire bitartekariaren bidez ahalegintzen ari naiz, zu konturatzeko gai izan zaitezzen zure benetako sostengua eta oinarria, **BIZIA eta IZATEAREN ITURRIA**, zuzen zuzenean datorrela **orekan den Kontzientzia Unibertsalaren** dimentsio ahalguztidunetik.

ZUGANA etorri naiz, **GUTUN** hau irakurtzen ari zaren horrengana; zuri, **BIZI ugariagoa** eta lurrean nengoelarik nioen **Zeruko Erresuma** aurkitzen laguntzera.

Zer esan nahi zuen baieztapen horrek giza terminoetan? Zer esan nahi nuen Bizi ugariagoa nioenean? Errezagoa da niretzat esanahia zuei deskribatzea 2001ean, K.O. lehen urtean jendeari argi azaltzea baino. Hala ere, badakit barne-hautemate espiritualak ireki gabe dauzkaten pertsona askori sinestezina irudituko zaiola orain erran behar dudana.

Beraz, -ulertarazten lagundu nahian- gogoratu eta eskatu behar dizut kontura zaitezen ez zarela kontzientzia duen gorputz bat:

‘Zu Zeruko Kontzientzia zara lurrean ikusgai egindako ‘kontzientzia izaki’ berezietan indibidualizatua, elementuetan bildutako partikula elektrikoen bidez, zuri forma ikusgaia emateko oinarritzko patroia fisiko baten arabera’.

Existenziaren Egia eta zure izate fisikoaren sorburuak ulertzeko, egunero ahaleginak egin behar dituzu lurreko hautemate mugatuak desegiten, zeintzuetatik gorputzak bere ‘izatea’ jasotzen baitu, eta sortua eta guztiz garatua baita -soilik- ezin aldatuzko lege fisiko/zientifikoen arabera.

Zure giza sineskera zahar eta mugatuaren ordez, egunero honako ulerkuntza hau garatzen ahalegindu beharra daukazu: zure ‘errealitate pertsonala’ -zure arima- zuzenean dator Osoko Errealitatetik – **IZATEAREN ITURRITIK** –.

Zure gorputz fisikoak Bizia ere hartzen du Osoko Errealitatetik sorkuntza-unean, baina ‘kontzientiaren bibrazio frekuentzien’ hasierako mailak ere moderatuta dago; zeinetatik sortua izan baitzen zure gorputza. Giza kontzientzia kontrolatzen duten ‘atxikidura-arbuioen’ bulkada magnetiko emozionalak gero eta murriztuago eta itxiago dago gorputza urteak joan ahala.

Zer esan gura dut honekin?

Kontatu behar dizudanak sekulako eragina dauka gizartearen etorkizunerako baldin eta, egiteko gai zaretenok, hori ulertzen saiatzen bazarete.

Hain zuzen, **GUTUNOI** begiratzen diezuen moduak, zuen etorkizuneko bizitzen nondik norakoa zehaztuko du. Horrek erran nahi izanen du zera hauen ezberdintasuna: edo gaurko zuen kontzientiaren bibrazio frekuentzien parametroan ez aurrera ez atzera geratzea, edo pixkanaka gero eta kontzientzia-maila altuagoetara aurreratzea, eta orain ematekotan nagoen ezagutza-ariketarik onura aterako duten seme-alabak ekoiztea!

Lurrean nengoenean honako adierazpen hau egin nuen eta maiz errepikatu nuen, baina inoiz ez zen ulertua izan: ‘haragitik sortzen dena haragia da, eta espiritutik sortzen dena espiritua!’

Esan gura izan nuen pertsona batzuek berezko trebetasun espiritualak dutela kontzientzia espiritual-emozionalaren jatorritzko frekuentziara itzultzeko, non sortuak izan baitziren; eta urte batzuk joan ondoren, berriz jaio eta kontzientzia mentala har dezaketela sorkuntzaren bibrazio frekuentzia espiritual berean, eta gero *bizi, eboluzionatu eta lan egin frekuentzia horretatik aurrera.*

Sorkuntzaren kontzientzia emozional-espiritualaren jatorritzko frekuentzia, oinarria izango da haurraren bide espiritua.

‘Haragiaren irrika lujuriosoetatik’ baino sortuak ez direnek zail izaten dute edozein ‘egia’ hautematea entzumenaren, ikusmenaren, ikumenaren, eta usaimenaren ziurtasunetik haratago.

Aurrekoa zalantzan jartzen baduzu, gelditu eta hausnartu existentziaren ezinaldatuzko printzipioaz: **KREAZIO ORO** ikusgai egindako **KONTZIENTZIA** da.

Gauza bizidun bakoitzak soilik pentsatu eta jarduten du dagoen kontzientzia mailan - egozentrikoan edo espiritualean-.

Sorkuntza gertatu aurretik, giza hazia gizonezkoaren, aitagaiaren, kontzientzia guztiaz betea da, eta obuloa emakumezkoaren, amagaiaren, kontzientzia guztiaz betea da.

Koitoa izan bitartean, gizonaren eta emakumearen kontzientzia mental/emozionalean aldaketak izaten dira. Baliteke maitasuna eta nahitasuna areagotu egiten direla sentitzea; eta baliteke ere gehiago hurbiltzeko eta espiritu-harmonia izateko irrika adierazten saiatzea. Horixe da benetako batasun espiritual/fisikoa. Aitzitik, beren batasun nahia gero eta autoasetasun indartsuago bihurtu ahala, hori jarduera egozentriko bihurtzen da eta soilik erreakzio egozentrikoak jasoko ditu. Hala ere, batasun unean bi partaideren kontzientziaren egoera edozein izanda ere, klimax gorena lortzeko nahiaren kontzientziak ahaleginak egiten ditu, eta organu fisikoak bideratzen ditu energia psikiko/fisikoa ekoizten duen erritmo batean mugitzera; zeina, pixkanaka garuneraino igoko baita goraka doan bibrazio energia-bulkada sortuz harik eta ia eldarnio eta gozamen gailurra erdietsi arte, zeina lehertzen baita une bateko estasiaren eta asetahun aintzagarriaren eztanda. Gero, askapena dator eta berriz mailaz mailako jaitiera giza kontzientziaraino.

Eldarnio/gozamenaren une berean, giza kontzientzia goraino igotzen da **Zeruko Indar Bizia** jo arte, zeinak hazia pizten baitu gizonarengan eta obuloa emakumearengan. Baliteke sorkuntzarik ez izatea, eta biak, hazia eta obuloa, kontzientzia fisiko arruntera itzultzea.

Sorkuntza izaten denean, giza hazia obuloan barneratzen da eta **Zeruko Biziaren** bibrazio gorenetan elkartzen dira uztartze fisiko eta espiritual batean. Kontzientzia elkartu horretan, euren oreka eta alaitasun unean igotzen dira bat bihurtzeko bai **Zeruko Bizian** Bertan, bai aita/amaren giza kontzientzian.

‘**Kontzientzia-batasun**’ hori **Zeruko Biziaren Kontzientziaren** dimentsiorik gorenaren baitan gertatzen da, eta pentsaezinezko irri eta alaitasun unea da, zeren gizonezkoaren eta emakumezkoaren bi elementuak berriz baitaude baturik, elkarturik eta orekan uztarturik, haurra ekoizteko bat eginik. Batasun une hori, pertsona bat ezin esanezko estasi aintzigarrira itzultzearen oroitzapena da **Oreka Unibertsalaren Zeruko Kontzientzian**.

Koitoa gizon-emakumeen arteko bihotzezko maitasun hutsak erakarria denean, giza kontzientzia elkartua -koitoak dirauen bitartean- igotzen da ‘Kontzientziaren bibrazio-frekuentzien’ gero eta maila altuagoetara, harik eta parte hartu arte Zeruko Adimena/Kontzientzia Amultsuaren bibrazio-frekuentzietan. Halako inguruabarretan sortutako haurra, espiritutik jaioa da.

Maitaleek badakite noiz maite duten elkar eta noiz datozen bata bestearengana samurtasun eta maitasun hutsez; zeren aipatu koitoa gogamenaren, emozioen eta gorputzaren arteko batasun unea baita, eta gero dirau maitaleen euren kontzientzian, eta zail egiten zaie elkarrengandik banatzea. Jabetuta daude haraindiko edertasunaz, hau da, maitasun emozionalaren berritze batez asetahunaren

ordez, eta baita ere jabetuta barnean dena hartzen duen harmoniaz. Gizon eta emakume horiek **Zeruko Kontzientziak** elkartuak dira.

Tristeki gerta liteke beren **KONTZIENTZIA EGOZENTRIKOAK** elkarrenganako sentitzen zuten maitasuna zikintzea eta pixkanaka neurri handi batez ordeztea, bananduta, bakarrik eta triste utziz, eta emozionalki eta fisikoki ahuldurik; eta beren buruari galdetuz zergatik murriztu eta hil zitekeen halako maitasun eder eta goratu hura.

GUTUN hauek izan litezke baliabidea, zeinaren bidez maitaleek gaudituko bailukete bulkada egozentrikoa, eta lehengo maitasuna berreskuratuko; baita maila gorago eta espiritualago batean ere. Hala izanez gero, gizona eta emakumea lehen baino askoz osoago bihurtuko dira. Horrek elkar ditzake edo ez, edozein maila gaindi dezakeen beste erakarpen sexual batean, beren kontzientzia-egoeraren arabera gauditurik baldin badute bat-egite fisikoaren grina.

Beste edozein emoziorekin egindako batasun fisikoak, 'haragia, haragian sartuz' izeneko kondizio aldera jotzen du; eta hori lurreko bibrazio frekuentziak -eskuarki negatiboak- jasotzea baino ez da, horrelako batasunetik antzeko progenie bat sortuz. Nahiz eta seme-alabarik ez sortu, kaltegarria da bientzat, zeren bakoitzaren kontzientzia-energia trukatzea eta xurgatzea gertatzen baita bestearen gorputzean, eta kontzientzia-energia hori negatiboa, etsaitua edo kritikoa baldin bada, kaltegarria izan daiteke bientzat. Gogoratu kontzientziaren energia **Aita-Adimena eta Ama-Maitasuna elektromagnetismoaz** osatua dagoela.

Bikotekideen arteko energia-trukatzea energia berekoa da, zeinetatik osatzen diren gorputzaren kanpo emozional magnetikoak eta mental elektrikoak. Dena da kontzientzia. Hortaz, kontzientzia-energiak trukatu eta xurgatzen direnean gorputzaren isurietan, jokabide mental/emozionaletan eta pentsamenduetan barna, bakoitzak kidearen egoera fisiko/emozional/mentalean eragiten du.

Koitoa, osasuntsua eta bizi-eramailea izateko, sentitutako benetako maitasunaz soilik egin behar da, non maitatuaren onura maitalearena baino garrantzitsuagoa den.

Ez da inoiz erabili behar harreman-hausturak eta zauriak sendatzeko.

Koitoa akto pozgarria izan daiteke iritzi edo haserre gora beheara baten ondoren egina, egon denean elkarren arteko zinezko barkamena eta bata bestearenganako maitasun berrituaren **osoko** zaharberritzea; baina inoiz ez zauriak ezkutatzeko, ezta ere lagunarengan, emozioak jasotzeko gezurrezko gaitasun-zentzua eragiteko. Zalantzarik ez, horrelako koitoak aldi baterako ongizate eta borondate on eta iragankorraren zirrara emango die, zeren euren kontzientzia-energiak igoak izango baitira bibrazio frekuentzia altuagoetara. Baina, hori **KONTZIENTZIA PERTSONALEN BEHIN BEHINEKO ARINDURA BAINO** ez da.

Bikoteak, oraindik ere, bestearekiko ezinikusia edo pentsamendu kritiko erdeinagarriak gordez elkartzen direnean, **kontzientzia forma** negatibo horiek bestearen kanpo elektromagnetikoetara transmititzen dira, eta halako ondoez-zirrara sortzen dute barrenean, zeinaren oso kontziente ez baita bere laguna. Hala ere, harremana pixkanaka murriztua izaten da bi lagunetako inor ere guztiz kontziente izan gabe zer ari den gertatzen. **Horixe da arrazoia, zeinarengatik bikote baten erakarpen fisikoa txikitu eta hil egiten den. Ezkutuko pentsamendu eta sentimendu kritiko eta negatiboek pixkanaka suntsitzen dute eta biei sakonki eragiten diete izatearen maila bakoitzean.**

Bibrazio frekuentziak erori ahala, xurgatu eginen dituzte lehen besteekin eztabaidatzera bultzatzen zituzten pentsamenduek eta sentimenduek; eta beraz, arazoak errepikatuz joango dira egunez egun. Pertsonak sexua panazea bezala darabiltenean, hori frustaziobide bihurtzen da, eta lilura-galtze edo desilusia egonkortu egiten da bizitzan elkarren arteko begirune eta maitasun gabezira bideratuz.

Beraz, funtsezkoa da pertsonak konturatzea borrokak eta liskarrak beren kontzientzia egozentrikoaren ezkutuko bulkadetatik sortzen direla, eta bulkada horiek euren sentimendu amultsuen kontrola hartzen dutela, eta bulkada egozentrikoak aurrez sendatuak izan behar direla, bikoteek elkarren arteko ulerkuntzaren, kontsiderazioaren eta maitasun kontsekuentearen maila lor dezaten.

Areago, lagun bakoitzaren kontzientzia-egoerak azkenean eragiten du bere inguruan, bizi baldintzetan eta eguneroko arrakastan edo arrakasta ezean. Umeei ere eragiten die, sor dezakeelarik elkarren kooperazioa eta patroi mental/emozional osasungarriak dituen familia bat edo familia ez-funtzional bat, zeinetan kide bat bera ere ez dagoen benetan besteekiko begikotasunean edo onarpenean.

Pentsa dezakezu familia-egoera arrakastatsuak edo ez-funtzionalak, euren berezko nortasunetatik eta eguneroko rola jokatzeko duten moduetatik baizik ez direla sortzen. Egia da familiaren bizimodua, bakoitzaren nortasunaren eta jarreraren ekoizpena dela, baina hausnar dezazun nahi dut hautsi egiten den familia ez-funtzionalaz; non elkarbizitza eta harreman sexuala amaitzen diren, non gurasoak banatu eta guztiz bizimodu berriak hasten dituzten, askatzea lortu dutelako akto sexualean xurgatzen zuten kontzientzia kritiko eta ez-osasuntsutik. Hori egiteko bezain indartsuak baldin badira, bakoitzak 'izaki berri' bat aurkitzen du, ingurune berri bat eraikitzen du eta bideari ekiten dio arrakasta berri bat lortzealdera

Hala ere, zinez elkar maite duten bikoteak, bestearen beharrak elkarrekin begiratzen dituztenak modu orekatuan hartuz eta emanaz, laguntza emozionala behar denean edo orientabidea (ez ohartarazpena) eskatzen zaionean eskainiz, ikusiko dute bakoitzaren kontzientzia dinamikoaren energien xurgatzeak bat eginik dagoela familia.

Aurreko ahapaldien arabera, honezkero uler daiteke koitua egin baino lehen ez litzatekeela inoiz egon behar kexatzeko arrazoirik, ezkutuko liskarrik, erdeinu edo iraintzerik. Aipatu sentimenduak erabat konpondua egon behar dira sexua egin aurretik.

Are gehiago, solasa eta adierazpen askatasuna arautzat hartzen diren erlazio batean, bakoitzak uko egin behar dio maitasun sexu harremanari harik eta bien artean maitasun sentibera-indar bat eraikia izan arte, eta bien kontzientzia **egon arte oreka-hutsezko egoera batean.**

Bortxatzeari dagokionez, horixe da beste baten aurkako basakeriarik kaltegarriena, eta egileak bere buruarentzat basakeria horren ondorio zuzena erakarriko du etorkizunean. Bereziki gaiztotua eta bihurritua den ego-kontzientzia batetik dator. Halako pertsonen kontzientzien bibrazio frekuentziak, hain dira baxuak eta astunak, ezen pertsonalki suntsigarriak izateko modukoak baitira.

Joandako garaietan etengabe irakatsi eta sermoi ematen zitzaion gizarteari. Mendebaldeko herrietan, arrazoiz, Hamar Aginduak aurkeztuak izan ziren kultura humanizatu eta zibilizatu baten benetako oinarriak bezala autokontrola irakatsiz, zeina erraz onartua izan zen munduko erlijio guztietan.

Gaur egun espektakuluaren eta medioen industriak duen eragina dela eta, ego-kontzientzia indartzean

gutizia egozentrikoa da kontrolatzen duena.

Ulertu eta onartu ere behar duzu kontzientzia-energiak, beroaren eta soinuaren energiak bezain errealak eta aktiboak direla. Soinu uhinek zenbait sustantzia zeharkatzen duten bezala, pertsona baten kontzientzia-energiek ere birus baten antzera infektatzen dituzte beste gogamen baten kontzientzia-energiak beren joera basatiekin. Baliteke, energia hauek zehazki ez adieraztea bortxatzailearenak bezala, baina ziur egon zaitez transmititutako kontzientzia-energiek bai ezartzen dutela ideia edo sentimendu berriren bat pertsona errugabe batengan. Zuen zientifikoak ez daude prest telepatian sinesteko, baina telepatia bizitzako egitatea da nahiz eta kontzientzia baldar baten jarduera egon daitekeen hain orientaturik bere bururako, ezen ezin baititu onartu beste baten gogamenean sortu izandako bulkada berriak.

Horretaz ez dut besterik erranen, baina jakinaren gainean jarri behar ditut elizan, legean eta gobernuan goi-postuak dituztenak eta garai kritiko hauetan jendearenganako erantzukizunak betetzen ez dituztenak. Azkenean nabarituko dute euren betetze-etikoaren hutsegite nabarmena, lurreko betebeharrak beren gain hartzen dituzten bitartean. Negligentzia morala dela eta, euren bizitzetan errebotatzen sentituko dituzte kaltetuak eta suntsituak izan diren guztien bizi-haztarnak. Ekintza BAKOITZAK bere antzeko eraginak dauzka.

Agian orain ohartuko zara gaurko joera sexuala munduan zergatik ari den sortzen egoerarik deitoragarrienak mundu guztian zehar.

Esaten ari naizena argi eta garbi uler dezazun, nik nahi dut zera IRUDIKATZEN eta ULERTZEN saia zaitez: Oreka Unibertsalaren Zeruko Kontzientziaren Izaera, mugagabeko Ahalmena dela, zeren eta oreka-harmonia honako bulkada unibertsalen arteko kontroletik sortzen da:

gizona eta emakumea,

adimena eta maitasuna,

esperimentatzeko borondatea eta baieslea izateko borondatea,

aktibo aritzeko irrika, eta bridatzeko eta status quo-a mantentzeko irrika,

loturak eta egonkortasuna osatzearen.

IZATEAREN oinarrizko **BULKADA** hauek, **4. gutunean** azaldu bezala, izaki ikusgai guztiei bizia, forma, egitura eta izatea eman dien **'Errealitatea'** dira.

Dimentsio hori -edertasun, harmonia, estasi goren, begirune, adimen eta maitasun-egoera bat da. Hori lurra erakuts dezakeen guztia da, baina zure ikusmolderik urrunenetik askoz haratago den eskala batean.

Saia zaitez zure kontzientzian sartzen aurreko bi ahapaldien **esanahia**. **Esanahia** ulertu eta zure egiteak aldatu egingo dizu duzun Zeruko sorburuen ikuspegia eta existentziarena berarena. Lehen aipaturiko ahapaldi horietan deskribatu dizut **BIZIAREN izaera eta muina**, **ZEINA -BIZIA-** ekin eta aktibatzen baita haziaren eta obuloaren barnean, hauek haur bati forma emateko elkartzean.

Hauxe da zure egia, errealitatea, arima, psikea, eta zure izatearen mailarik sakonena.

Senez, horretaz guztiaz kontzientea zara. Hautxoa alaitasunaren hezurmamiatzea da. Bere erlazioen eta ingurunearen kontzientzia garatzean adierazten duen alaitasuna, Zeruko BIZIAREN iturburu sakonetik sortzen da, zeinak zelulaz zelula osatu duen instrukzio genetikoaren arabera

oraingo forma hartu arte.

Zein da ezberdintasuna arimaren eta psikearen artean? Oraintxe azalduko dut ezberdintasuna, zeina lurreko psikologoek ezbaian jar dezaketen; hala eta guztiz ere, hauxe da egia. Arima 'Zeruko Garra' da; hots, **Zeruko Biziaren muina** deskribatzeko erabilitako metafora bat, zeina izate indibidualaren baitan irentsia baita sorkuntza-unean. **INDAR BIZIAK** forma pertsonala hartzen du, eta askatu egiten du 'jardueraren indar elektrikoaren' eta 'atxikidura–arbuioen' bulkada magnetikoen energia, gorputza eraikitzeke barne-lanari ekiteko.

Beraz, zure izatearen barne muinean, zera daukazu:

zure arima – Zeruko Errealitatea

hau da: **Zeruko Adimenaren/Zeruko – Maitasuna,**

zeina den, Zeruko Bulkada indartsua, lege eta orden perfektuzko sistema baten barruan sortzeko, hazteko, elikatzeke, hornitzeko, sendatzeko, babesteko, eta behar guztiak asetzeko.

Hauxe da zure arima den **Errealitatea**.

Beraz, ego-bulkadak gaindituak dituzunean eta ARIMA gonbidatua duzunean pentsamendu eta sentimenduen gaineko nagusitasunari eustera, bultzatua izanen zara goian deskribaturiko Zeruko Bulkada guztiak adieraztera. Izaki bizidun guztien eta unibertsoaren beraren ongizaterik gorena baino sustatuko ez duen desira batek harturik egongo zara. Zeruko Kontzientziaren benetako mezulari bihurtuko zara, Bere Izatearen kalitate guztiak adieraziz.

Arima **Zeruko Kontzientziarekin** berriz elkartzeko une hori heldu arte, psikeak zure **giza kontzientziaren** zokorik sakonenak hartzen ditu, eta bere ezagutza zure arimatik ateratzen du. Zure baitan den ezkutuko sena da, ongia eta gaizkia bereizten dakiena.

Egoa ere zure sorkuntza-unean osatzen da.

Haurra garatu bitartean, egoa bere presentzia nabarmenarazten hasten da. Zure giza 'niaren' oinarria da, zeinak banakotasuna ematen dizun. **Zure giza kontzientziaren energia da.**

Horrek bakarra egiten zaitu, eta bereizia beste guztiengandik.

Zure banakotasuna gordetzeko, egoak kanpoko edozein erasotatik babestu behar zaitu, eta behar duzuna eman behar dizu aurrera egiteko, loratzeko, hazteko eta zoriontsu izateko.

Hori Jainkoaren eran ordenatzen da, eta ez da mespretxuz tratatu behar. Egoa kontzientziaren, sortzearen, garapenaren eta hazkundearen barne muina da 'guztiz garrantzitsua' eta oso beharrezkoa.

Egoa, soilik jarduera–kontzientziaren korrante elektrikoak gobernatzen du; zeina baita izaki bizidun **guztietan** presente dagoen etengabeko mugimendu–bulkada, baita ere hostoak biratu eta hedatzen dituzten landareetan ahalik eta ondoen eguzkia bilatzeko. Hori, jarduera etengabearen eremu elektrikoan eta 'atxikidura–nahiaren' eremu emozionalean sortzen den mugimendu bat da landarearen kontzientzian, zeinak landareari hazi eta eguzkiaren beroaz gozatzen uzten dion. Egoa 'lurreko kontzientziaren' oinarria baino ez da izaki bizidun guztietan. Ez du inolako antzik arima den Zeruko Errealitatearekin. Egoaren bulkada, soilik nahi duena lortzera jotzen duen bulkada da, entitate banakoa zoriontsua izateko eta horren biziraupena bermatzeko erasoetatik babestearren. Eta beste entitate edo espezie batzuk zapaldu egingo ditu bere helburuak lortzearren. Soilik lur-dimentsiokoa da. Egoaren indar hori gaituta dago izaki

bizidun guztietan barna, amebarik txikienetik hasi eta errege ahaltsuarenganaino.

Egoaren Bulkadari, Unibertso biziaren Babeslea eta Diktadorea dei geniezaiokoe.

Puntu horretantxe nahasten dira mundu honetako pertsona gehienak, 'Jainkoa' izatearen aukerari so egitean. Ego-kontzientziak bultzatutako zenbait espezieren jarduerak aztertzen dituzte; besteak beste, espezie bat bizi ahal izateko beste batez elikatzen dela dakusate, eta pertsona horiek erabakitzen dute 'basakeria' horrek sortzailearen lana izan behar duela. Orduan, nolatan izan daiteke sortzailea 'Maitasunaren Jainko'?

Hain zuzen ere, horixe da desegin nahiko nukeen gaizkiulertze eta sineskeretako bat. Nire helburua da jende guztia zera honen jabe izatea: unibertso osoak bere oinarriko nukleoan eta gauza guztien oinarrian du **Zeruko Indar Bizia**, zeinak inspiratu eta arnasten baitu kreatio guztiaren bidez. **Bera** da ezkutuko **Oreka**, baina ahaltzua, zeinetatik gauza guztiek izatea eta forma hartu duten.

Bera da 'zientzialarien espazioa', non gauzatzen baita 'partikula elektrikoen Mugimendua eta Atxikidura'.

Bera da, bai 'betiko existentziaren alor' ezezaguna eta barneraezina, bai unibertsoko gauza guztietan dagoen sustantzia ororen atzean den Iturri ezkutua.

Egoa, Zeruko Sormenaren tresna da, *banakotasuna* sortzeko BERE IZATEAREN BATASUNETIK.

Oraintxe esango dudana zientzialariek guztiz eztabaidatua izanen da; hala ere, 'lurreko' zenbait izakiren arimek buruz hitz egin behar dut, zeintzuen adimena nahikoa aurreratua baitago hartu beharreko neurri egokienez eztabaidatu eta erabakitzeko; eta gainera, ulermen maila partzialez bada ere, inguru giroan gertatzen ari denari erantzuteko -senez eta adimentsuz-. Espezie aurreratu guztietako entitate horiek beren klaseko jenioak dira. Ez epaitu inongo espezieren barne-garapena, ez gizakiarena ez bestelakoena, gorputz fisikoaren itxuragatik. Gauza bizidun guztiak **Zeruko Bizitik** bertatik indibidualizatu dira.

Psike batzuk gai dira, gero eta espiritualizatuago duten eremu mental/emozionalagatik, kontzientzia egozentrikoa arakatzeko eta egintza amultsuak eta gizatiarrak egiteko, zeintzuk soil-soilik etor baitaitezke Zeruko Errealitatetik datozen arima-bulkadetatik. Beraz, errespetu eta begirunerik handiena eduki beharra dago izaki bizidun guztientzat.

Hor, non espeziea aurreratu baita ideia eta pentsamendu argiak formulatzeko, eta soinu eta hitzen bidez adierazteko mailaraino, eta non psikearen garapen espiritualak barnera baitezake kontzientzia egozentrikoa, psikea galdezka hasten da:

Hau al da bizitzan den guztia? Zein dira gure helburuak bizitzan? eta abar.

Hori gertatzen denean, arima psikean inprimatzen hasten da Izatearen Iturria erdietsi nahiaren premia beharra; zeinak -psikeak- senez badakien existitzen dela, eta bere benetako bizitokia eta atsedenekua dela. Arimak bere Izatearen Iturriarekin elkartzeko duen etengabeko irrika, ezkutua bada ere, psikeak sentitua izan daiteke orain.

Bizi-garapen hori euren bizitzetan inoiz lortzen ez duten pertsonak baldin badira, beren egoaren prozesu mental/emozionalak adimenaren eta arrazoiaren ariketara hain indartsu orientatuta daudelako da, ezen beste pertsona batzuek honako galderok egiten dituztenean: Nola hasi zen bizia?, Ba al da Jainkorik?, Nola diseinatua eta sortua izan zen halako Unibertso zoragarria? bilatzailea ez denaren eta sinesgabearen egoa, bere guztiahaltasunaz baino ez da jabetzen, eta prest dago gorako dimentsio bat

izatea posible denik ukatzeko, nondik lurra forma hartu ahal izan zuen. Egoak arrazoiak ematen ditu psikeak transmititzen duen arimaren ahotsaren aurka, eta argudio bakoitzarekin irmoago ixten da mundu ikusgai eta materialaren hautematetan barna, zeintzuk baitira bere segurtasun bakarra.

Beraz, arima kateatuta geratzen da egoaren lotura elektro/magnetiko/mental/emozionaletan barna, eta giza gogamenak konbentziturak jarraitzen du arimarik ez dagoela, eta existentziaren lur dimentsioa eta bizi-indar fisikoa errealtate bakarrak direla.

Aipatu pertsona horren gogamena psike/arimaren edozein xuxurla inspiratzaile arbuizatzeko prest baldin badago, gorputzak ondoez txikiak pairatzen ditu, harreman asaldagarriak izaten ditu, bizitza oro har estresak hartzen du; eta horrek ondorioz gaixotasuna ekar dezake. Horrelaxe da hori, ahora daramaten elikagaitik ateratako energia-baliabide mugatuetatik baino elikatzen ez direlako pertsona horiek. Energia hori prozesu kimiko batetik dator, eta ez Bizi orenen Iturritik.

Nahiz eta hasieran zeure bizia Zeruko Errealitateetik hartua duzun eta Horrek izatea emana dizun; energia fisikoa ere elikaduratik eta urdail-prozesuetatik ateratzen duzu; hain zuzen ere, horiexek fabrikatzen dituzte janaria zatitzen duten enzimak; janariak forma erabilgarria izan dezan zelula fisikoak elikatuak izateko zure gorputz eta gogamen guztian. Horixe duzu gorputzaren bizitza!

Jende asko bizi eta hiltzen da soilik bere prozesu kimikoetatik datorren energia atereaz.

Entitate bizidunaren eremu emozional/magnetikoek eta mental/elektrikoek biziki eragiten dute prozesu kimikoetatik ateratzen den energia motan eta kopuruan.

Gauza bizi oro: ameba batetik elefante eta gizaki bateraino inguratzen duten eremu elektriko eta magnetiko horiek honako hauen konbinaketa dira: arimatik datorren **Bizi-Indarraren** irradiazio pertsonalak, entitatearen etengabeko mugimendu mental elektrikoan ari diren 'kontzientzia ezagutzaren' irradiazio pertsonalak, eta entitatearen 'atxikidura-arbuioen' bulkada emozional magnetikoak. Entitatearen gogamenetik eta emozioetatik igarotzen diren pentsamendu eta sentimendu guztiek biziki eragiten diete eremu elektro/magnetiko hauei. Halaber, 'eremuek' sakonki eragiten dute gorputzaren beraren prozesu fisikoetan. Igo eta jaisten dute gorputzaren osasuna kontzientzia-pertsonalaren mailaren arabera; **Zeruko Adimen/Maitasunaren** Bizi-Indarraren irradiazioekin harmonian edo gatazkan egoaren bulkada egoistengatik.

Entitate ez-zoriontsu bat behera etorri eta hil egiten da. Entitate zoriontsua loretu egiten da. Hori existentziaren oinarritzko egitate bat da. Azken analisian, entitate bizidun bakoitza, poza edo frustrazioa ematen dion barne egoera berberaz elikatzen da.

Ikus dezakezu baieztapen horren egia, haurtxo baten kontzientzia-garapenean eta garapen fisikoan. Haurtxo zoriontsu eta alai bat loratzen da, barre egiten du erraz, alaitasunez betea dago. Ama amultsu batekiko harremanak areagotu egiten du haurraren ongizatea. Amaren haurrarenaganako irradiazio amultsu eta alaiak elikatu egiten dituzte txikiaren kontzientzia-irradiazioak, eta halaber, indarra eragiten diote gorpuzñoari.

Haurra garatu ahala, garatzen ari den nortasuna 'kolorea ematen' hasten zaie arimaren irradiazioei, kontzientzia indar distiratsu edo ilun batekin, zeinak umearen osasuna indartu edo murriztu egiten duen.

Indar handiko zentzumen psikikoa duen pertsona batek, eremu elektromagnetikoak ahuldu egiten direla dakusa gizabanako edo animalia baten eremu energetikoa murrizten ari denean, nahiz eta oraingoz

gaixotasun fisikorik ez erregistratu ez gizabanakoak, ez animaliak. Egun bat edo gehiago igaro daiteke gorputzari bere baitan kontzientzia-energia agortzen zaiola manifestatzen hasi arte, agortze edo gaixotasun modu batez.

Lurrean badituzu pertsonak fenomeno hori grabatzeko makinak garatu dituztenak, eta datozen urteetan horixe izanen da onartutako metodoa hurbiltzen ari den gaixotasuna diagnostikatzeko eta tratatzeko. Are gehiago, ezagutza espiritual zientifikoaren teknologia eboluzionatu ahala, **agortze fisikoaren arduraduna den egoera mental emozional zehatza, lehendabizi hipnosipean errebelatua eta elektronikoki grabatua izanen da bibrazio frekuentzietan pantailetan. Horren ondoren egongo den ikerketa elektronikoak islatu egingo ditu gorputz atal batzuen bibrazio frekuentziak pantaila berdinetan. Prozesu horrek kolore aldaketak ekarriko ditu, zeren eta kontzientzia-patroi bakoitza lehendabizi bibrazio frekuentzietan eta koloretan manifestatzen da. Bibrazio frekuentzia mental/emozionalak gorputz atalen bibrazio frekuentziekin alderatzean, identifikatuak izanen dira energian murrizturiko organua eta horren kausa mental/emozionala.**

Psikiatreek ez dute berriz arakatuko igarotako esperientzietan, nahasmendu mental/emozional /fisikoen sorburu edo kausa posibleak zundatu, sailkatu, eta baieztatu nahian, eta gero nahasmendu horiek borrokatzeko giza razionalizazioak ekarri nahian.

‘Barne gizonaren’ egoera espiritualaren egia argi eta garbi agertuko da, eta hori izanen da oinarria behar den instrukzio espirituala eta meditazio lana eta lan mentala bururaino eramateko, berreskura ditzan osasuna, bizitasuna, ikuspegi eta helburu berriak, eta gaitasun sakonago bat baldintzagabeko maitasunerako.

Jakina, drogak ez dira gehiago erabiliko izaki sufritzailearen kontzientzia-irradiazioak igotzeko, zeren **Zeruko Biziaren-arimaren energia** agortzea, gaixotasunaren arduraduna baita. Berari irakatsiko zaio nola igo gorputz-atal hunkituaren bibrazio-frekuentziak modu sistematikoan eta nahita, eta nola arduratu ondoez psikologikoa eta **arimaren energiaren** agortzea eragiten duten inguruabar pertsonalez. Zeruko energiaren eraginak sendotasunez lagunduko du gaixoa, bizi espiritual hutsaren benetako bitartekariak direnen bidez. Suspertze-prozedurekin, hautemate berriekin eta bulkada egozentrikoen kontrolarekin, egoera fisikoa agudo argituko da zenbait egunetan, berehala ez bada.

Hala ere, **Gutun** hauek irakurtzean, zeure burua sendatzen has zaitezke. Zure autotratamenduan oinarrizkoak izan behar dute instrukzio hauek, bai **Zeruko Errealitatearen** existentzia bultzatzaileari buruzkoak, bai **BERAREKIN** harmonizatze eta sendatze prozesuan **Zeruko Bizia** ateratzeko era zuzenari buruzkoak.

Zeruko Errealitateetik Bizia ateratzen hasten zarenean, zure bilatze espiritualaren bidez galderak eginez, meditatuz, irakurriz eta otoitz eginez, zeure psikea irekitzen hasten zara bere lur-kontzientzia egozentrikoaren amets itxitik; zure gogamenera eta emozioetara erakartzen duzu **Zeruko Errealitatearen Beraren** izaera. Zure gogamenetik eta emozioetatik igarotzen den guztia, zu inguratzen zaituzten eremu elektromagnetikoetara doa. Horrek zure indarrari laguntzen dio. Zure eremu elektromagnetikoak indartu ahala Zeruko Errealitateetik ateratzen duzun ahalmenagatik, ahalmena zure gorputz fisikora itzultzen da, eta organo bakoitza gero eta osasuntsuago egiten da eta edozein disfuntzio

pixkanaka desagertzen da. Behar beharrezkoa da zu eremu fisiko/elektromagnetikoen prozesu horietaz gogoratzea, ezagutzak inspiratu eta adoretuko zaituelako zure eguneroko meditazioan eta Zeruko Errealitatearekiko sintonizazioan.

Zure benetako bilatzea eta meditazioa **IZATEAREN EGIA** aldera bideratzen badira, eta ez lurreko erlijio-formaren bati, edo azaleko 'espiritualitateari' edo espuriari, edo ahalmena duela uste duzun edozein objektu materialari, ikusiko duzu pixkanaka zure izaera aldatzen joango dela, eta lehen inoiz ez bezala hasiko zara gainerakoen eta euren beharren kontziente egoten. Enpatikoagoa, ulertzaileagoa, amultsuagoa, bihozberagoa eta gozoagoa izango zara. Hain zuzen ere, **Zeruko Biziaren** arimaren kalitateak orain hasiko dira asetasunaren eta autodefentsaren bulkada egozentriko naturalak kontrolatzen.

Ohartarazi nahi dizut aldi berri eta zail batean sartuta egongo zarela. Gatazka garaia izanen da honako hauen artean: alde batetik, eskuarki bere desirak asetzeari ekin dion -beharbada besteen kostepean/kontura- bulkada egozentrikoa, eta beste aldetik, 'Maitasuna legea dela' eta besteen eskubideak norberaren -niaren- eskubideekin orekatu behar direla konturatzen hasten den psike-arima.

Psikeak, bere kontzientzian, arimatik **-Zeruko Errealitateetik-** gero eta gehiago xurgatu ahala, bulkada egozentriko zaharra bere agintea askatzen hasiko da, eta eguneroko barne gatazka areagotu egingo da.

Psike-arimak, orain gogamenaren eta bihotzaren bidez lan egingo duenak, jakingo du orekatzen ari dela bere beharren balioa besteen beharrekin; eta larrituta eta nekatuta sentituko da bere burua eztabaidatzearen eta epaitzearen barne borroka amaigabeaz. Psikea hautemate-puntu horretara iristen denean, horrek adierazten du giza kontzientziaren tiratzea murrizten ari dela hainbestearino, non **arima** hurbiltzen eta **Zeruko Errealitatearekin** berrelkartzen ari baita. **Arimak**, psikearen bidez, aintzat hartzen du **ZERUKO MAITASUNA** maiteago duela -zeina **Zeruko Errealitatea** den- lurreko edozein gauza maite duena baino, eta bere **IZATEAREN ITURRIAREKIN** guztiz bat eginda egon nahi duela.

Azkenean, psikeak kontzientzia egozentrikoaren bulkadak damaizkio Zeruko Errealitateari, eta psikeak eskatzen du 'egoa' entregatzeko gai izatea, 'niaren' heriotzan zehar joateko gai izatea, alegia. Hori gertatzen da jendea benetan gailurra erdiesten ari denean eta eskuarki maisu espiritual baten beharra izaten duenean, maisuak bide horretan zehar gida dezan.

'Niaren heriotz' hori ez da hasi behar barne ikuspegi espiritual handiagoa erdiesteko modu bat bezala. Guztiz arriskutsua litzateke, eta ez litzateke lortuko bizieta espiritual edo lurtar handiagoa. Erabat suntsigarria litzateke psikearentzat eta egoarentzat behar den garaia izan baino lehen.

Arimaren, psikearen, egoaren eta fisikoaren garapen-prozesu guztia oztopatuko luke.

Halako pentsamendurik ez litzaioke inori bururatu beharko aurrerago egotearen hautemate espiritualean eta egian. Horrelako 'borondate-indar' ekintza autosuntsigarria litzateke, zeren sortzen baita espirituali garrantzitsuago izatearen bulkada egozentrikotik.

Egoaren maisutasunaren esperientzia hori behar den momentuan gertatzen denean -egokiro-; arima, psikearen bidez, libre dago neurri handi batez zuzenean harremanetan egoteko **Zeruko Errealitatearekin**, zeren kontzientzia egozentrikoaren berriketa etengabea gelditua izan baita. Horrez gero, lurraren tiratzea ez da beharrezkoa. Handinahikeria egozentrikoa ahultzen da, jabego pertsonalen desioa urtu egiten da. Bakea nagusi da gogamenean. Arimak, zeinak orain psikearen bidez argi hitz

egiten duen, irrikatzen du igotzea, elikatzea, beste arimen hazkunderan laguntzea, hezte, jasotzea eta hornitzea ulermenez eta samurtasunez, inolako saririk edo norbere handinahikeriarik gabe.

Arimarentzat, **Zeruko Errealitatearekin** kontaktatzea eta sintozizatzea gero eta erakargarriagoa den neurrian, bere lurreko helburu bakarra izango da lagun hurkoa eta gainerako pertsonak tratatzea arimak berak loretzeko eta pozik egoteko behar duen interes eta begirune mota berberarekin. Ematea arnas hartzea bezain erraza suertatzen da, eta azkenean pribilegioa izaten da besteen alde eta besteekin lan egitea ongizate mailarik altuena sustatzearen. Horixe da **Zeruko Maitasuna** jardunean.

Hala ere, ez dago sentimentaltasunik Zeruko Errealitatean.

Indibidualizatzearen asmoa izan zen **Zeruko Errealitateak BERE sormenaren, alaitasunaren eta errealizazio pertsonalaren izaera BERE baitan** esperimintatzea.

Beraz, lurrean nengoenean, ematearen eta hartzearen arteko lerroa argi eta garbi markatu nuen zera esan nuenean: 'Egiezu besteei eurek zuri egitea nahi duzuna!' Baieztapen hori ohar amultsua izan zen adierazteko ereiten den bezala jasoko dela uzta. Jokatzeko orientabidea ere izan zen. Gainerakoei, zuri egitea nahi duzuna egiten badiezu, orduan ziur esan daiteke maitasunaren ikuspegitik soilik diharduzula. Zuretzat egitea nahiko zenukeena besteei gustatzen ez bazaie, orduan saiatzean eta huts egitean oinarrিতта bizi zara, urrats positibo bat egin duzu aurre aldera benetako maitasun ekintza bat betetzeko, eta hori arbuaiatua baldin bada, irabazi duzu etorkizunean askoz estimatuagoa izango dena jakiteko aukera. Honela, hazi egiten zara maitasun egintzan.

Honako hau ere esan nuen: 'Maite ezazu zeure lagun hurkoa zuk zeure burua maite duzun bezala!' Horrek esan nahi du zeure erosotasunagatik duzun ardura bera izan behar duzula zure lagun hurkoarenagatik ere.

Horrek ere esan nahi du pozik zeundekeela era berean zeuri opatuko balizute besteentzat nahi duzuna.

Esan nahi du beste pertsonentzat izan behar dituzula zoriontsu egingo zintuzketen pentsamenduak, hots, pertsona horiek zuregan pentsatuko zituztenak.

Horren esanahia da zure kontzientzia guztiak besteak zaintzera eta arduratzera jo behar duela, zuri mina sortu ahal badizu ere haiek egiten dutenak. Gizaki guztiak bizi dira giza desio, helburu, hauskortasun, etsipen, haserre eta frustrazioen oihan batean. Gerrak suntsitutako kontzientzia horretatik ateratzen dira gaizki epaitutako erantzun anitz eta ekintza ahul.

Beraz, so egiozu hauskortasunari, barkatu adeitasun eza eta utziozu ezerezera joaten, hortik etorri zen eta. Zure bizitzaren **EGIA** eta **ERREALITATE** bakarra **Zeruko Kontzientzia Adimena/Maitasuna** da. Bizi ezazu ulerkuntza hori une oro.

Zeruetako Erresuma topatzeko, non arima Zeruko Errealitatearekin harmonian den, zure garapenean iritsi behar du denbora bat, zeinetan jada ez baituzu gizakien arteko hautemateek eta lur-kontzientziak erakarria izan nahi. Irrikatzen zaude erabat erretiratzeko eta Zeruko Errealitatearekin duzun kontaktua besteengana zabaltzen aritzeko. Arduraz joka ezazu, eta ez behartu besteak zure bide espiritualaren bidez, eurak bide espiritualean dauden ala ez begiratu gabe.

Aldi berean, zeure baretasuna atxiki behar duzu, beste batzuei ez utziz zure izaera amultsuaz baliatzen. Argi eta garbi marraztu behar duzu zuzenaren eta okerraren arteko lerroa, eta saihestu behar duzu

besteen egoismoak zuri intimitatea indarrez kentzea, horrek beharbada zure bakea suntsituko lukeelako. Hori bermatzeko, zure egokontzientziak ez du berriro agintea hartu beharrik. Bakez babes daiteke intimitatea. Adimena eman zaizu beharrezko helburu hori MAITASUN maila gorenarekin lortzeko. Gogoratu kontzientzia-bibrazioen eraikin espiritualak, zeina eraikia izan den **Zeruko Errealitatearekiko kontaktutik eta zure eguneroko pentsatze, sentitze eta bizimodutik, sakratua izan behar duela** eta kontu handia izan behar duzula besteen pentsamendu eta erreakzioen bibrazio baxuenetan harrapaturik ez geratzeko berriz.

Une oro, zure helbururik altuena zera da lurrean: **giza entitate bizidun ooren edo txikiago baten ONGIZATE lurtar eta espiritualik handiena sustatzea**. Ez beharra dutenen bibrazio mailara jaitsiz, baizik eta oso gora begiratzuz eta zure santutegira -zeina den zure sancta sanctorum gogamenean emozioetan eta bizi egoeretan- eraman zaituen jakinduria eskainiz, entzuteko eta onartzeko aukerarik baldin badago. Bestela isilean gorde.

Begikotasunak eta gupidak objetiboak izan behar dute. Enpatiak arrastaka eramango zaitu beherantz, eta nahasi egingo zaitu kontzientzia espiritualaren bibrazioetan, giza bibrazio-mailan. Horrek beharbada gatazkak sortuko ditu, non eta zinez igotzen eta sendatzen baino saiatu ez zinen tokian. Saihestu hori, zeren zure energia agortuko baitu eta zure helburu espiritualak suntsituko baititu.

MAITASUN hutsa soilik interesatzen da igotzeaz eta aurrerapen espiritualaz, sendatzeaz eta 'Zeruko Erresuma' eskuratzeaz.

Zeruko MAITASUNA sentimendu berotsua, gupidatsua da; maitatua hazteko, sortzeko, elikatua izateko eta besteak elikatzeke gai izanarazteko irrikaz betetako sentimendua; baita ere maitatu hori sendatua izateko, besteak sendatzeko, hezia izateko eta besteak hezteko gai izanarazteko; eta babestua egoteko, besteak babesteko, eta bere beharrak besteenak asetzeko gai izanarazteko.

Dena, lege eta orden garbiko sistema baten barruan.

Hauxe da ZERUKO MAITASUNA/LEGEA jardunean.

Zure helbururik altuena, **diharduen Zeruko Helburu** bihurtu denean, egoa (zure banakotasunaren nukleoa) jada zure arimak kontrolatua dago. Egoaren bulkada benetan zure konfort pertsonalaren defendatzaile eta babesle egiten da, baina orain guztiz harmonian dihardu zure arimaren arauekin, zeinak bere izaera **Zeruko Errealitate**terik ateratzen duen.

Berriro diot, ez dago sentimentalismorik Zeruko Errealitatean, legea eta ordena bermatzen duten mugetako bat bera ere ez da kentzen persona egoistaren exigentziak laketzeko, inolako etsite edo amore emate ahulik ez gainerakoen burugogorkeriaren aurrean.

Une oro, gogoan izan behar dugu PERTSONA GUZTIEK elkarren begirunea izan behar dutela. Errespetatuak izan behar dira besteek intimitatea, segurtasuna, gogamenean bakea, eta harmonia izateko dituzten eskubideak. Ezberdintasunak sortzen badira, elkarren begirunearekin konpon daitezke. Zenbat eta espiritualki eboluzionatuago egon, orduan eta errespetuago izango dituzu maila altuenak eta baxuenak berdintzat hartuz, ez -'Jainkoaren begien aurrean'- gizakiei esatea gustatzen zaien bezala, **baizik eta bizidun ooren barnean dagoen arimaren oinarrizko berdintasunaz dituzun hautemate espiritualizatuen baitan.**

Begirunea eta **ZERUKO MAITASUNA** batera doaz. Benetako **MAITASUNA** guztiz adeitsua da

maitatuarekin. Bi pertsonaren artean begirunea dagoenean, horrek maiz daramatza maitasun formarik gorenera.

Gutun hau onartzea zaila iruditzen bazaizu, gogoan har **giza gogamena mugatuta dagoela lur mailatik haratagoko dimentsioen ulerkuntzan. Ez utzi egoaren arrazonamenduari zu geldiarazten zeure arimaren bidaian.**

Hurrengo **GUTUNEAN ZERUKO MAITASUNAREN** gaia garatuko dut eta buru-estimua egoistaren xehetasunetan sartuko naiz, zuri zehazki erakutsiz emozio magnetikoak gaur egun nola dauden zure pentsamenduen, sentimenduen eta bizitzaren kontrolean. Urratsak marraztuko ditut, emozio horiek gainditu eta azkenean zure kontzientziatik desegin ahal izateko.

Nire helburua da, zu autoaurkikuntzaren eta aurrerapen espiritualaren bidetik gidatzea berehala **Argian** sar zaitezzen; existentziaren hurrengo dimentsiora igarotzen zarenean ezezik, lurrean zauden bitartean ere.

Orain zamaturiko existentzia ilun batean bizi zara, **'Zeruko Kontzientziaren'** barnean kontzienteki bizi beharrean BERE baitan sartuz eta BERARI utziz zure pentsatzea eta bizipenak kutsatzen eta alaitzen.

Jakizu nire Kontzientzia Kristikoa beti zurekin dagoela, eta deituz gero berehala jar zaitezkeela harremanetan nirekin. Izan bedi hau zuretzat bihotz altxagarri bat, baina ez makulu bat! Ni zure iluminaziorako atea baino ez naiz, Kontzientzia Kristikoaren barruraino igotzeko duzun atea, besterik ez.